

LHKren Txostena: EAEko 2025 urterako laneko jaiegunen egutegi ofizialari onartzeko Dekretu-proiektua



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2025 URTERAKO LANEKO JAIEGUNEN EGUTEGI OFIZIALA ONARTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA

Aurrekariak

2024ko otsailaren 12an Kontseilu honen egoitzan Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak prestatutako Dekretu- proiektua sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025 urterako Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzekoa.

Aipatutako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak testu hori bidali zuen Kontseilu honetara, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3. artikulua xedatutakoa betez, Kontseiluak dagokion txostena egin dezan.

Gogoeta orokorrak

Dekretu-proiektu honek 2025eko urterako Euskal Autonomia Erkidegoko laneko jaiegunak ezartzen ditu, hain zuzen ere, lanaldia, lanaldi bereziak eta atsenaldiak arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuan finkatutako jarraibideen markoan.

Aipatutako Errege Dekretuak Estatuaren eremuko laneko jaiegunak ezartzen ditu. Autonomia Erkidegoek ezin alda ditzakete horietako batzuk. Beste batzuk, berriz, aldatu egin daitezke, eta dagokion autonomia erkidegoak tradizioz berezkoak dituen beste batzuez ordeztu.

2001/1983 Errege Dekretuak autonomia erkidegoei ematen dien aukeratzeko ahalmen hori modu honetara zehazten da:

a) Martxoaren 19a ala uztailaren 25a aukeratu ahal izatea.

b) Errege Dekretuko 45. artikulua lehen zenbakiko d) atalean aipatzen diren jaiak (Ostegun Santua, urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania, eta martxoaren 19ko San Jose edo uztailaren 25eko Santiago Apostolua) tradizioz berezkoak dituzten beste batzuez ordezteak.

c) Astelehenera eramaten diren jai nazionalak autonomia erkidegoetako jaiez ordezteak; horrela gertatzen da egutegi ofizialean ezarritako jai igandean suertatzen denean.

Berriazko gogoetak

Dekretu-proiektuan ezartzen den eta, gero, txostena egin dezan, Lan Harremanen Kontseiluari bidaltzen zaion 2025erako laneko jaiegunen egutegia egiteko aintzat hartu dira aipatutako Errege Dekretuan adierazitako parametroak eta parametro hauek eskaintzen dituzten aukerak.

LHKren Txostena: EAEko 2025 urterako laneko jaiegunen egutegi ofizialari onartzeko Dekretu-proiektua



Dekretu-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2025erako berariazko jaitzat hartzen du apirilaren 21a, Pazko Garizumako Astelehena.

Jai autonomiko hori aitortzeko erabiltzen den jai nazionala urriaren 12koa da, Espainiako Jai Nazionala, igandea delako eta, beraz, hurrengo astelehenera aldatuko delako.

Era berean, Dekretu-proiektuan uztailaren 25eko Santiago Apostoluaren jaia aukeratu da, martxoaren 19ko San Jose jaiaren orde.

Beraz, jai nazionalak Autonomia Erkidegoko jaiez ordeztzeko aukera erabili egiten da, 2001/1983 Errege Dekretuak administrazio autonomikoei ematen dien ahalmenaren barruan, txosten honetako gogoeta orokorretan azaldu denez.

IRIZPENA

Lan Harremanen Kontseiluaren Txostenen Batzordea 2024ko otsailaren 23an bildu da, 2024 urterako lan-jaien egutegia onartzeko Dekretu-proiektua aztertzeko.

Aipatutako bileran, CCOOk, UGTk eta Confedebaskek izendatutako kideek adierazi dute ados daudela aztertutako dekretu proiektuaren testuarekin.

Beste alde batetik, Ainhize Muniozguren Ibarenek, LAB sindikatuaren ordezkariak adierazi du, aurreko urteetan esan izan duen bezala eta legezketasun arrunteko gaiak alde batera utzirik, EAEko egutegian ez liratekela jaitzat agertu behar Euskal Herriaren errealitateak arrotz dituen horiek; zehazki, abenduaren 6a, Espainiako Konstituzioaren eguna, jaieguna izendatzearen kontra dago. Bere ustez, gure erkidegoan lan-egutegi propioa adostu eta erabaki beharko litzateke, non jaiegunak eta ospatzeko arrazoiak Euskal Herriko errealitate kultural, sozial eta politikoarekin bat datozen

Bilbo, 2024ko otsailaren 23an.